



IKUSI DIREN ALBISTEGIAK ETA HIZKUNTZAK

13. Txostena
2020ko abendua

IKUSI DIREN ALBISTEGIAK ETA HIZKUNTZAK

Ikusiker Panela osatzen duten UPV/EHUko eta UPNAko ikasleei galdetu diegu azkena ikusi duten albistegiari buruz. Era berean, ikus-entzunezkoak estuki lotuta daude hizkuntzarekin, eta konbinazio anitzak gertatu daitezke kontsumitzen diren ikus-entzunezkoen hizkuntza-hautuen atzean. Eremu horri buruzko ezagutza areagotu nahi izan dugu inkesta honekin.


1. Ohar metodologikoak

Azterketa-lan hau egin den unean, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (UPNA) mila ikasletik gorak osatzen dute Ikusiker Panela. Unibertsitari hauek modu iraunkor eta maiztasun handiz erantzuten dituzte luzatzen zaizkien online galdera-sortak, beti ere ikus-entzunezkoen kontsumoei eta IKTen-linformazio eta Komunikazio Teknologien erabilerei buruzkoak. Panela 2018-2019 ikasturtean sortu zen Applika izeneko ikerketa-proiektuaren barruan (US17/40). UPV/EHUko NOR ikerketa-taldeak eta EITBk abiatutako proiektuan unibertsitateko ikasketa desberdinetako eta hiru kanpusetako ikasleak biltzen ditu panelak.

Txosten honetan aurkituko dituzu 2020ko abenduaren 3tik 9ra bitartean luzatutako galdera-sortaren emaitzak. Jasotzen duen informazioa da ikusitako azken albistegiari buruzkoa, eta edukia kontsumitu duten hizkuntzei buruzkoa.

Inkestaturen artean, albistegia ikusteko gehiengoaren hautua telebista tradizionala izan da, bestelako aukeren aurrean guztiz nagusituz.


1. Irudia – Albistegia non ikusi zenuen?



Iturria: Ikusiker Panela, 2020ko abendua

Denbora aldetik denetarik izan da, baina gehiengo handi batek (%81,7) orduerditik behera igaro du albistegia ikusten.


2. Irudia – Albistegi hori ikusteari zenbat denbora dedikatu zenion?



Iturria: Ikusiker Panela, 2020ko abendua

Hizkuntzari dagokionez, inkestatuen ia hamarretik zortzik gaztelaniaz ikusi duela adierazi du, bigarren hizkuntza euskara izanik % 16,8arekin.

3. Irudia – Aipatzen ari zaren albistegi hori zein hizkuntzan ikusi zenuen?



Iturria: Ikusiker Panela, 2020ko abendua